

Azken urteetako bideari segida emanaz, Euskal Herrian Euskaraz erakunde euskaltzaleak heldu den apirilaren 6rako V. Hizkuntza Eskubideen Eguna antolatu du Atarrabian.



Euskaldunon hizkuntza eskubideen urraketa larria eta sistematikoa da Euskal Herrian. Egoera okerra izanagatik ordea, euskararen normalizazioaren bidezidorrean urrats ugari eman izan dira herri ekimenetik bideratuta. Aurrez-aurre aurkitu diren oztopo eta bide egitea ahalbidetzen ez digun edozein traba gaindituaz eman izan diren urratsak. Aurrera begira ere urratsak behar ditugu, esparruz esparru, lan ildoaz lan ildo eta proiektuz proiektu, Euskal Herri euskalduna eraikitzen eramanango gaituzten urratsak. Hemen duzue 2008ko Hizkuntza eskubideen eguneko egitarau osoa:

10:30

DIANA GAITERO, TXARANGA eta SUZIRIEKIN

10:30-12:30

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN V. NAZIO BILKURA Erretiratuen egoitzan

11:00-14:00

EUSKARAZ BIZI GUNEA Riberd Parkean

Haurrentzako aisialdia

Eragileen erakusketa (Erretiratuen egoitzako arkupetan)

13:00

MANIFESTAZIOA

“Urratsez urrats, Euskal Herri euskalduna eraiki!” lelopean

Udal plazatik

13:30

EKITALDI NAGUSIA

Udal plazan

14 :30

BAZKARI HERRIKOIA

Udal plazan. 500 lagunentzat. Aurretik bazkarian geratzeko asmorik izanez gero, guri lehenbailehen jakinarazi eta txartelak gordeko genizkizueke.

16:00-19:00

PUZGARRIAK eta JOKOAK Riberd Parkean

Gas taldearen emanaldia

17:00

DANTZALDIA Udal plazan

TXIMELETArekin dantzaldia ETA HESIANekin kontzertua

Animatu zaitetz eta Atarrabiara gerturatu zaitetz euskararen ofizialtasunaren alde!